



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2017.11.14an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko azaroaren 14n, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkuretako aktak onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU 2017ko irailaren 19an eta 29an eta azaroaren 2an egindako bilkura berezietako akten zirriborroak.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2017ko Aurrekontu Orokorraren kredituak aldatzeko espedientea

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez gai hau mahai gainean uztea erabaki du.

2.2.- 2018ko Aurrekontu Orokorraren zirriborroa

2018. ekitaldiko Aurrekontuaren lehen zirriborro bat aurkeztu du kontu-hartzaileak. Gobernu Juntaren hurrengo bilerara behin betiko zirriborroa ekartzea aurreikusten duela esan du, Juntakideen aldaketa proposamenak eta iradokizunak jaso ondoren.

2.3.- Epeleko 2017ko obraren kapital ekarpena udalei eskatzea

Kontu-hartzaileak honako hau dio: "Udal ekarpenak arautzen duen estatutuen 35. artikulua irizpidetik at kobratu behar dira epeleko kapital ekarpenak 1481/2001 Errege-dekretua betetze aldera. Horregatik Gobernu Juntak hartu behar du ekarpen hauek kobratzeko erabakia estatutuen 13. artikuluan oinarrituz."

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2017ko aurrekontuetan aurreikusitako Epelerako udal kapital ekarpenak azaroan kobratzea.

2.4.- Foru Kontratazio Zentrala

Bulego materialez hornitzeko kontratazio espedientea; kontratuaren esleipena

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 30eko erabakiaren bidez onartu zen Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bulego materialaren hornidura kontratatzeko esparru akordioa burutzeko kontratazio espedientea.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuko foru diputatuak, 2017ko irailaren 1eko foru aginduaren bitartez, aipatu esparru akordioa MONTTE, S.L. enpresarekin burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honi dagokio orain, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Mankomunitate honek kontratatzea beharko duen horniketa zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 16.000 euroko gastua ateratzen da, BEZ barne.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua MONTTE, S.L., (I.F.Z.: B20062295) enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

LEHENENGO.- MONTTE, S.L., (I.F.Z.: B20062295) enpresari esleitzea, “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez bulego materialaren horniketa kontratatzeko esparru akordiotik” eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Baimentzea eta xedatzea MONTTE, S.L., (I.F.Z.: B20062295) enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, 1.1000.220.920.00.01 kontusailaren kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

Hainbat luzapen

- **Eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua emateko kontratua luzatzea.**

Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak, 2014ko azaroaren 25eko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen GIROA, S.A.U. enpresarekin burutzea “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua kontratatzeko esparru akordioa”, hasieran bi urterako, baina urtebeteko bi alditan gehienez luza daitekeena.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Foru Aldundiak Esparru Akordioa beste urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea Mankomunitate honek eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua emateko GIROA, S.A.U. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.
- **Lan arriskuen prebentzio zerbitzuko 1 lotea, osasun zaintza, zerbitzua emateko kontratua luzatzea.**

Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak, 2014ko azaroaren 11ko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen FREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L. enpresarekin burutzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez lan arriskuen prebentzio zerbitzuko 1 lotea, osasun zaintza, kontratatzekeo esparru akordioa", hasieran bi urterako, baina urtebeteko bi alditan gehienez luza daitekeena.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Foru Aldundiak Esparru Akordioa beste urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea Mankomunitate honek osasun zaintza zerbitzua emateko FREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria. (Orain, xurgapen prozesu baten ondorioz, QUIRÓN PREVENCIÓN, S.L.U.)
- **Arratoiak hiltzeko zerbitzua emateko kontratua luzatzea.**

Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak, 2014ko abuztuaren 7ko foru aginduaren bitartez, ebatzi zuen TÉCNICA SANITARIA AMBIENTAL, S.L. enpresarekin burutzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez arratoiak hiltzeko zerbitzua kontratatzekeo esparru akordioa", hasieran bi urterako, baina urtebeteko bi alditan gehienez luza daitekeena.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Foru Aldundiak Esparru Akordioa urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak hornidura honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea (2. luzapena) Mankomunitate honek arratoiak hiltzeko zerbitzua emateko TÉCNICA SANITARIA AMBIENTAL, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

2.5.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten den behin betiko bermea itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Ondorengo bermeak itzultzea:
 - 1.- Enpresa: ARIZMENDI KOOP.E.
Kontratua: Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratua (2015)
Zenbatekoa: **3.625 €.**
 - 2.- Enpresa: FCC AMBITO, S.A.
Kontratua: Hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratua (2013)
Zenbatekoa: **5.380 €.**
 - 3.- Enpresa: SERVICIOS INTEGRALES VEHÍCULOS URBANOS, S.L.
Kontratua: Alboko kargako ibilgailu baten horniketa (2016)
Zenbatekoa: **8.925 €.**
 - 4.- Enpresa: PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A.
Kontratua: Edukiontzien horniketa (2014)
Zenbatekoa: **725 €.**
 - 5.- Enpresa: ID WASTE, S.L.
Kontratua: Edukiontzien horniketa (2014)
Zenbatekoa: **450 €.**
 - 6.- Enpresa: PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A.
Kontratua: Lurpeko edukiontziak mantentzea (2014)
Zenbatekoa: **4.500 €.**

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Zur-hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea

Bide publikoan, Garbiguneetan eta Mankomunitatearen beste zerbitzu batzuetan bildutako zur hondakinak kudeatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

3.2.- Plastikozko hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea

Garbiguneetan eta Mankomunitatearen beste zerbitzu batzuetan bildutako plastikozko hondakinak kudeatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

3.3.- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresarekin sinatutako olioia biltzeko kontratuaren aldaketa

Zegokion prozedura jarraitu ondoren, pasa den azaroaren 2an sinatu zuen Mankomunitateak ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresarekin Antzuolan, Aretxabaletan, Bergaran, Elgetan, Eskoriatzan, Leintz-Gatzagan eta Oñatin sukaldean erabilitako olioia aparte biltzeko, bildutako olioia kudeatzeko eta edukiontzia, ekarpen-guneak eta erabiltzaileen ontziak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua.

Kontratu honen Administrazio Klausula Berezien Agiriaren 18. klausulan jasotzen da, aurreikusitako aldaketak arautzerakoan, ondorengo aldaketa suposizioa: *“Kontratu hau aldatu ahal izango da baldin eta bere indarraldian zehar Arrasateko Udalak olioia jasotzeko zerbitzu mankomunatu honekin bat egitea erabakitzen badu”*.

Orain, Arrasateko Udalak aurkeztu dio Mankomunitateari kontratu honetan sartzeko bere eskaera.

Hau dela eta, ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresarekin 2017/11/02an sinatutako kontratuaren aldaketa-espedita bideratu da.

Aldaketa-proposamena ikusirik, kontratistaren adostasunarekin, Gobernu Junta honek aho batez ondorengo ERABAKI DU:

1. Mankomunitate honetako udalerrietan sukaldean erabilitako olio aparta biltzeko, bildutako olio kudeatzeko eta edukiontzia, ekarpen-guneak eta erabiltzaileen ontziak garbitzeko zerbitzua emateko kontratuaren aldaketa onartzea, Administrazio Klausula Berezien Agiriko 18. klausulan ezarritakoaren arabera, eta aldaketa-proposamenean zehazturiko terminoetan.
2. Kontratuaren prezio berria onartzea, hilean 1.182,50 €-koa izango delarik, gehi BEZ.
3. Aldaketa honen ondorioz kontratuaren prezioan izandako gehikuntzari erantzuteko dagokion gastua onartzea.
4. Behin betiko bermea 2.310 €-tan berregokitzea.

3.4.- Ehunkiak bildu eta kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedita. EMAUS GIPIZKOA, S.L. enpresaren kontratua luzatzea

Gaur egun banatuta daude ehunkien bilketa eta kudeaketa zerbitzuak. Ehunkien bilketa zerbitzua etxeko hondakinen bilketa zerbitzu orokorraren barruan ematen da, eta bildutako ehunki hauek beste enpresa kudeatzaile bati ematen zaizkio.

Datorren azaroaren 25ean bukatuko da EMAUS GIPIZKOA, S.L. enpresarekin ehunkiak kudeatzeko 2015ean sinatutako kontratuaren hasierako indarraldia. Kontratu honek gehienez beste bi urtez luzatzeko aukera du. Kudeaketa optimizatzeko helburuarekin, ehunkien bilketa zein kudeaketa bateratu nahi ditu Mankomunitateak lehenbailehen. Horretarako, baldintza agiriak prestatzen ari da.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Gobernu Juntaren abenduko bilkurarako ehunkien bilketa eta kudeaketa zerbitzua emateko baldintza agiriak eta dagokion kontratazio espedita prestatzea.
2. Gaur egun EMAUS GIPIZKOA, S.L. enpresarekin ehunkiak kudeatzeko daukagun kontratua ehunkien bilketa eta kudeaketa kontratatzeke lizitazio berri honetatik eratorritako kontratu indarrean sartu arte luzatzea; gehienez ere 6 hilabetez.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa;

- Itxaron zerrendako eskaera berri bat; S.I.G.

Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroan zerbitzu modulu bat libre gelditu denez, eta itxaron zerrendan honako eskaera hau dagoenez:

1.- S.I.G. (Shakti Reiki Kontsulta) (Reikiren kontsulta). 2016ko abenduko Batzordean baloratutako eskaera. Lortutako puntuazioa: 25 puntu

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- S.I.G. andreari baimena ematea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2AR-ZM zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Eskaera berria; N.I.E.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: seguruen aholkularitza, prestakuntza, giza baliabideak eta finantzazioa, epaiketetarako adituen iritzia, lehiaketa prozesuetarako aholkularitza.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- N.I.E. jaunari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (8-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Luzapen bat; J.S.M.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko azaroaren 15era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 5-IM industri modulua erabiltzeko baimena, J.S.M. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2015eko urriaren 13ko erabaki bitartez.

- Luzapen bat; I.A.A.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko azaroaren 16ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 6-IM industri modulua erabiltzeko baimena, I.A.A. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2015eko urriaren 13ko erabaki bitartez.

- Luzapen bat; N.Z.G.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2018ko urriaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2-IM industri modulua erabiltzeko baimena, N.Z.G. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2014ko urriaren 23ko erabaki bitartez.

- Fidantza bat bueltatzea; M.P.V.G.

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

- M.P.V.G. ekintzaileari bere egunean jarritako 363,15 €ko fidantza bueltatzea.

Une honetan Maria Ubarretxena irten da bileratik.

4.2.- Garapen Agentzia Zerbitzuko enpresa arloko teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzeko hautapen probetarako deialdia eta oinarriak

2018. urtean Garapen Agentzia Zerbitzuak eskualdeko enpresekin Foru Aldundiak diruz lagundutako hainbat proiektu garatzeko eta kudeatzeko aldi baterako enpresa arloko teknikari baten beharrari buruzko Garapen Agentziako Arduradunaren txostena ikusirik, eta Garapen Agentzia eta Pertsonal Batzordeen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitate honetako Garapen Agentzia Zerbitzuko enpresa arloko teknikari lanpostu bat urtebetez bitarteko funtzionario izaeraz betetzeko deialdi publikoa egitea.
- Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea, proba psikoteknikoak proba baztertzaila bezala jasoz.

4.3.- Mankomunitateko hainbat udalerritan argiteri publikoaren instalazioak berritzeko bigarren proiektu bateratua; “Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía (IDAE)” delakoan aurkeztu beharreko mailegu eskaerari buruzko erabakia

Energiaren kontsumoa murriztu eta energia-eraginkortasuna areagotzeko helburuarekin, beste ekimen batzuen artean, Debagoieneko Mankomunitateak 2015ean bera osatzen duten udalei eskualdeko udalerrietan kanpoko argiteriaren instalazio publikoak berritzeko proiektu bateratu bat garatzeko aukera planteatu zien. Horren aldeko jarrera teknikoa hartu ondoren, udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketaren deskribapen-txostenak egin ziren, eta aurreikusitako jarduketak eskualde mailako proiektu bakar batean batu ziren, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuan (IDAE) aurkeztuz eta bere laguntza finantzarioa lortuz. Gaur egun proiektu honi dagozkion instalazio lanak egiten ari dira.

2017ko apirilaren 8an, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) argitaratu zuen finantza-laguntza deialdi berri baten oinarriak onartzen dituen apirilaren 5eko ebazpena. Deialdi hau dela eta, Mankomunitateak bere udalei proposatu die argiteria publikoa berritzeko bigarren proiektu bat garatzeko azterketa egitea.

Horren aldeko jarrera teknikoa jaso ondoren, udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketaren deskribapen-txostenak egin dira, aurreikusitako jarduketak eskualde mailako proiektu bakar batean batuz, guztira 863.563 €-ko aurrekontuarekin.

“Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía (IDAE)” delakoak, 2017ko apirilaren 5eko Ebazpen bitartez, onartutako deialdiaren barruan, bigarren proiektu hau ere interes gabeko mailegu bitartez finantzatzeko, Mankomunitateak eta Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako Udalek, aurrez dagokien erabakiak hartu ondoren, argiteria publikoaren instalazioak berritzeko aipatu proiektu



bateratua garatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu behar dute, IDAEn proiektua finantzatzeko dagokion mailegua eskaera aurkeztu ahal izateko.

Kontuan izanda Mankomunitatearen estatutuen 7. artikuluan, bere xedeen artean, honako hau jasotzen dela: *“Udal ekintza zehatzen koordinazioa. Arlo desberdinetako udal ekintza zehatzen koordinazioa, Udalek aurrez horrela erabaki ondoren.”*

Kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostena ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako Udalekin kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko proiektu bateratua garatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatzea, ondoren zehaztutako klausulen arabera, Udalek aurrez dagokien erabakiak hartu ondoren.

KLAUSULAK

LEHENA.- *Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, non aipatzen baita bere xedea, Hitzarmen honen sinatzaileek jarduketara hau aipatu artikulua hiru garren atalean kokatzea erabaki dute, hor berariaz sartzen baita "udal-ekintza zehatzen koordinazioa", jarduketara hau babesten duena, honetarako alde aurretik dagozkion udal-erabakiak hartu direlarik.*

Ondorioz, aurretik IDAEk proiektua onartu eta finantzatzea ebatzen badu, Mankomunitatea arduratuko da elkarrekin idatzitako Hitzarmen hau izenpetzen duten udal kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko proiektua gauzatzeko, bere aurrekontu osoa 863.563 €-koa izanik, honako xehetasunaren arabera udalerrira edo loteka:

Aretxabaleta: 234.061 €.

Arrasate: 474.861 €.

Bergara: 68.847 €.

Eskoriatza: 85.794 €.

Horretarako, sinatzen duten udalek baimena ematen diote Mankomunitateari proiektuan inplikaturiko udal-instalazioetan —berorien titulartasuna aldatu gabe— aipaturiko proiektua zuzen gauzatzeko beharrezko jarduketak egin ditzan, baita horien garapenerako beharrezko neurriak hartu ere.

BIGARRENA.- *Idatzitako proiektua kudeatzeari eta, hala badagokio, gauzatzeari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak honako lan hauek egingo ditu:*

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren aurrean aurkezteko Hitzarmen hau sinatzen duten Udalek eta Mankomunitateak batera garaturiko proiektua.

IDAEk onartzen badu aurkezturiko proiektua, aipaturiko onarpenaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera gehienez ere 3 hilabeteko epean, proiektua loteka gauzatzeko dagokion kontratazio-espeditatearen izapideak hasiko ditu Mankomunitateak, lote bakoitza udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketari dagokiolarik.

Eraikuntza obretako osasun eta segurtasun araudi minimoa jasotzen duen 1997/1627 Errege Dekretuaren ildotik, Mankomunitatea promotore gisa arituko da.

Proiektua esleitu ondoren, dagokion mailegua izenpetuko du oinarri erregulatzailerekin eta IDAEk egindako deialdian ezarritako baldintzen arabera.

Mankomunitateak, inplikaturiko udalen laguntzaz, proiektuaren garapena ikuskatuko du eta dagozkion fakturak ordainduko ditu, gehienez ere urtebeteko epean amaitu behar direlarik lanak, kontratua sinatu ondoren.

Mankomunitateak udalei eskatuko dizkie IDAEekin kontraturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta dagozkion ordainketak egingo ditu mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.

Mankomunitateak IDAEren deialdiekin bateragarri diren beste laguntza-deialdi batzuk aztertuko ditu, eta beharrezko gestioak egingo ditu horiek eskatzeko eta, onartzen badira, gero kudeatzeko. Dena den, laguntza horiek IDAEekin hitzarturiko mailegua amortizatzeko erabiliko dira.

HIRUGARRENA.- *Proiektuan parte hartzen duten Udalek, bestalde, honako lan hauek egingo dituzte:*

Mankomunitatearekin kolaboratuko dute beren udalerrian kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lanak egiteko beharrezko laguntza teknikoa emanez, gai honetan adituak diren teknikarien dedikazioaren bidez.

Proiektuan parte hartzen duten Udaletako bakoitzak dagozkion ekarpenak ordainduko ditu bere udalerrian gauzaturiko inbertsioen arabera, IDAEekin kontraturiko maileguari dagozkion amortizazioak egin ahal izateko Mankomunitateak. Horretarako, IDAEren behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.

Proiektuan parte hartzen duten Udalek, hornikuntza eta instalazioaren harrera egin ondoren, egindako instalazioaren jabe izango dira eta beharrezko mantentze-lanak beren gain hartuko dituzte.

Kontratuan ezarritako berme epean, Mankomunitateak kudeatuko ditu enpresa esleipendunak konpondu beharreko aipatu epean sortutako arazoak.

LAUGARRENA.- *Proiektuaren edozein aldaketak dagokion Udalaren aurreiazko baimena beharko du. Aldaketa horrek gastua gehitzea baldin badakar, instalazioaren jabea den Udalak Mankomunitateari ordaindu beharko dio gehikuntza hori kontratistari ordaintzeko data baino lehen.*

BOSGARRENA.- *Hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduketak amaitu arte.*

SEIGARRENA.- *Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta beronen interpretazio eta garapena herri-administrazioen arteko hitzarmenei aplikatzen zaien administrazio-ordenamendu juridikoaren arabera arautuko dira.*

Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan sortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumende eta erabakipean jarriko dira.”

2. Aurrez lau udal interesatuekin dagokion lankidetza hitzarmena sinatu ondoren, 2017ko apirilaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako, IDAEk, 2017ko apirilaren 5eko Ebazpen bitartez, onartutako kanpoko udal-argiteria instalazioak berritzeko laguntza-programan parte-hartzea eta oinarri erregulatzailleak onartzea.
3. Honetarako, IDAErekin mailegua kontratatzeko proiektua onartzea, ondoko ezaugarriak dituena:
 - a. Helburua: “Debagoieneko Kanpoko Argiteria Publikoaren Instalazioan Energia Eraginkortasuna hobetzeko proiektua edo Memoria II”-an jasotako inbertsioak finantzatzea. Proiektu honetan Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako udaletako argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lanak sartuta daude, guztira 863.563 €-ko aurrekontuarekin, ondorengo xehetasunaren arabera:
 - Aretxabaleta: 234.061 €.
 - Arrasate: 474.861 €.
 - Bergara: 68.847 €.
 - Eskoriatza: 85.794 €.
 - b. Finantza entitatea: IDAE.
 - c. Zenbatekoa: 863.563 €.
 - d. Amortizazio epea: 9 + gabealdiko epea (urtebete)= guztira 10 urte.
 - e. Interes tasa: 0
 - f. Konputatzeko interesa tasa (*): 0
 - g. Ordaintzeko maiztasuna: hilerokoa.
2. Mailegu-eragiketa horregatik, IDAE lehentasunezko hartzekodun gisa jotzea, eta beraz, langile-gastuen ostean, bere printzipala edo tronkoaren amortizazioari dagozkion ordainketek, berandutza-interesek edo balizko zigorrek lehentasuna izango dute ordainketen hurrenkeran, erakunde eskatzailearen diruzaintza-funtsak erabiltzeko planean, dagokion mailegu-kontratua indarrean den bitartean.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

17/66.- 17/22 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA SEIEHUN ETA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (543.616,57 €).

17/67.- 17/23 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA BI ZENTIMO (17.625,02 €).

17/68.- 17/24 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMA MILA ZORTZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA BOST ZENTIMO (31.807,05 €).

17/69.- 1.- J.E.I. kontratatzea irailaren 13an Oñatiko esekitokiak erreparatzeko, eta irailaren 20an Oñatiko Kilometroak jaialdirako edukiontzia gertatu eta jartzeko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- E.A.I. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Irailaren 15ean, arratsaldean, M.E. Epeleko zabortegiko zainzailearena.
- Urriaren 2an, arratsaldean, J.L.M. Garbiguneko zainzailearena.
- Urriaren 5ean eta 6an, D.G. Garbiguneko zainzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Irailaren 19an eta 21ean, D.G. Garbiguneko zainzailearena.
- Irailaren 22an, M.E. Epeleko zabortegiko zainzailearena.
- Urriaren 10ean, A.U. Garbiguneko zainzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- J.O.G. kontratatzea irailaren 19tik 22ra J.E. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- J.M.T.L. kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Irailaren 22an, G.I. txofer-zamaketaria ordezkatzeko.
- Urriaren 6an, Arrasateko errefuxaren ibilbide komertziala egiteko.
- Urriaren 9tik 18ra, M.L. langilearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- J.R.A. kontratatzea urriaren 2tik abenduaren 31ra zerbitzuko lan pilaketari aurre egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.



17/70.- 1.- Sukaldean erabilitako olioia aparte biltzeko, bildutako olioia kudeatzeko eta edukiontziak, ekarpen-guneak eta erabiltzailearen ontziak garbitzeko kontratua ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresari esleitzea, ondorengo prezioan: 430 €/edukiontziko/urtean, gehi BEZa.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei *“Convenio colectivo estatal de la recuperación y reciclado de residuos y materias primas secundarias”* delakoa aplikatuko zaie.

17/71.- 17/25 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HAMAZAZPI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (417.444,56 €).

17/72.- 1.- J.E.I. kontratatzea urriaren 11tik aurrera zamaketari lanak egiteko Javier J.E. txoferra bajaz dagoen bitartean. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- M.A.E. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Urriaren 13an eta 14an, A.,L. Garbiguneko zaintzailearena.
- Urriaren 19an eta 20an, J.A. Epeleko zabortegiko zaintzailearena.
- Urriaren 24an eta 31n, D.G. Garbiguneko zaintzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

3.- E.A.I. kontratatzea urriaren 20an D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- J.M.T.L. kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Urriaren 20an, Oñatiko ibilbide komertziala egiteko zamaketari bezala.
- Urriaren 23an, G.I. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

17/73.- - I.Z.M. izendatzea bitarteko funtzionario, 2017ko urriaren 12tik azaroaren 13ra arte, aipatu turismo teknikariaren oporreratiko ordezkapena egiteko. Hileko 2.604,10 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 931,11 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,29 €. (18)
- Berriazko osagarria: 1.274,70 €.

17/74.- 1.- A.A.G. zamaketaria kontratatzea urriaren 30ean eta 31n Epelen esekitokiak mugitzeko eta azaroaren 1ean Oñatiko ontzi arinen ibilbide komertziala egiteko, eta azaroaren 2an eta 3an S.C. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.E.I. zamaketaria kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Urriaren 30ean eta 31n, hondakin bilketa zerbitzuko hainbat lan egiteko.
- Azaroaren 1ean eta 3an, Arrasate-Eskoriatza ontzi arinen zerbitzua egiteko.
- Azaroaren 2an eta 6tik 9ra, hondakin bilketa zerbitzuko hainbat lan egiteko.

Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J.M.T.L. txofer-zamaketaria kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Azaroaren 1ean, Arrasate- Eskoriatza ontzi arinen zerbitzua egiteko.
- Azaroaren 2an eta 3an, G.I. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko.
- Azaroaren 6an eta 7an, Epelen esekitokiak mugitzeko.

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- A.A.I. txofer-zamaketaria kontratatzea azaroaren 1ean ontzi arinen zerbitzu berezia egiteko, eta azaroaren 6an eta 7an Epelen esekitokiak mugitzeko.

17/75.- 17/26 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA HIRU MILA EHUN ETA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (503.109,51 €).

6.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.